

ASTEAZKENA

2020/05/06
8. urtea, 1.233. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 82 €

Gertuko baserrietako produktuak etxean jasotzeko

Baserriak Km0
kooperatibak Internet
bidezko salmenta
jarri du abian // 3

Gaur erabakiko dute maila mantenduko ote duten

Eskualdeko futbol talde
nagusiek maila berean
jokatzea espero dute // 4



Ilepaindegi batean, atzo, bezero bati ilea moztzen, segurtasun neurriak mantenduz. JON MIRANDA

Hitzorduarekin edo etxera banatuta

Astelehenetik merkatari batzuk lanean hasteko aukera dute, eta ostatu, taberna eta jatetxeek etxera eramateko jakiak prestatzen dituzte; berriro ere lanean hasi ahal izatea albiste ona izan dela diote // 6-7

Natura zaintzen ikasteko webgunea sortu du Landarlanek

Naturan hezten
webguneak
ingurumenarekiko
pedagogia egin eta
kontzientziaztea
du helburu // 2



ORIA  BEILATOKIA
TANATORIO

Usabal Ind., 12. 20400 Tolosa
943 69 75 79

www.funerariaoria.com



Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergo edo Lanbide Heziketa arteko ikasleei eta haien irakasleei zuzendurik dago. ATARIA

Naturan hezten web orria aurkeztu dute

Natur aberastasunaren zaintzarako kultura zabaltzeko tresna moduan egin du Landarlan Ingurumen Elkarteak

Asier Imaz

Landarlan Ingurumen Elkarteak www.naturanhezten.eus ekimena jarri du martxan, *Ezagutuz maitatu, maitatuz babestu* lelopean. Ingurumenarekiko pedagogia egin eta kontzientzia sortzea du helburu,

«Klima aldaketak gure gizarte-

arentzat suposatzen zuen mehatxuaren berri duela hamarkada batzuk izan genuen arren, orain dela gutxi konturatu gara arazo oso larria dela», dio Landarlanek. «Giza-ekintzak naturaren gain eragiten dituen presioak mantenduz gero, urte gutxitan miloi bat espezie galduko direla ohartarazi ziguten zientzialariek

joan zen urtean», gogoratu dute. Bada, testuinguru horretan, «bat-batean zoonosi bidez» iritsi den koronabirusak mundua gelditu duela diote. «Egundoko krisi globala eragin duen gaitz hau, gizakiak fauna basatiarekin egiten dituen gehiegikeriekin lotu dute adituek. Garbi dago, azken hamarkadetan natura arduraga-

bekeria handiz ustiatu duela gizakiak, mundu mailako krisi ekologikoa sortuz, eta oharkabean, gure gizartearen etorkizuna zalantzan jarritz.

Egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko gizartearen pentsaera eta jarduna errotik aldatu behar direla uste du ingurumen elkarteak; «horretarako tresnarik eraginkorrena pedagogia dela iruditzen zaigu Landarlaneko kideei. Horregatik, hezkuntza helburu duen eta adin guztietarako pertsonen zuzendutako web orri bat sortu dugu. Atari honen xedea gure ingurumen naturalaren ezagutzan sakontzea da. Web orri honetan, hainbat arlotako Arazo Egoerak aurkitu daitezke, baita bideo, mapa, eta baliabide ugari ere».

Arazo Egoerak, batez ere ikasketetean (irakaskuntza arautuan) erabiltzeko diseinatu badi-ra ere, beste hainbat baliabide, edozein pertsonak natura, kultura eta historiako ezagutzak zabaltzeko erabili ditzake Landarlanen ustez. «Hauen artean erakargarrienak bideo laburrak dira: natura eta kulturarekin erlazionaturiko gaiak lantzen diren 3-5 minutuko hogeitabur bur aurkitu baitaitezke. Etxean sartuta gauden garai hauetan, naturara atera eta garai ezberdinetan bidaiatzeko aukera eman-gu digute».

Gizartean ingurumenarekiko sentsibiltatea eta kontzientzia-zioa sortzeko, honelako ekimenei bide eman behar zaiela uste dute.

Bigarren eguna eskualdean positibo berririk gabe

Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, Asuncion klinikak COVID-19a duen gaixorik gabe jarraitzen du

Erredakzioa

Osasun sailak eman dituen here-negun iluntzeko 20:00ak arteko datuen arabera, azken 48 orduetan ez dute positiborik zenbatu eskualdean. Berri onak hortaz, Tolosaldeari dagokionean. Esan behar da, orain artean, 232 herri-tar kutsatu direla koronabirusarekin, beti ere, datu horien arabera.

Asuncion klinikatik ere berri onak eman dituzte, eta gaixorik ospitaleratu gabe jarraitzen dute, Osasun Sailatik esan dutenez.

Azken astebetean hamar kasu gehitu dira. Jarraian, 232 koronabirus kasu horiek herriz herri ikusi daitezke: Tolosan 116; Amasa-Villabonan 29; Ibarran 23; Iru-ran 17; Anoetan 13; Zizurkilan 6; Alegian 4; Asteasun 4; Altzon 3; Bidania-Goiatzen 3; Adunan 2; Alkizan 2; Amezketan 2; Belaun-tzan 2; Hernialden 2; Albizturren 1; Berastegin 1; Leaburu-Txar-a-man 1 eta azkenik, Lizartzan 1.



BIDEGORRIKO ZOLADURAK KONPONTZEN

Herriko hainbat gunetan asfaltatze lanak egingo ditu Tolosako Udalak datozen egunetan. Lan horietan lehena herriguneko bidegorrietako zoladura konpontzea izango da. Astelehenan hasi ziren, eta gaur amaitzea aurreikusten dute. San Frantzisko ibilbideko eta Araba etorbideko bidegorriaren zatiak konponduko dituzte, eta Arrameleko zein Sameko zubian ere hobetze lanak egingo dituzte. Lanek irauten duten bitartean bidegorria itxita egongo da gune horietan, eta Leidor parean dauden aparkalekuak ezingo dira erabili. I.G.L.

Biurrun EAEko Auzitegi Nagusiko presidente, behin-behinean

Ekainaren 21ean hartuko du kargua, Juan Luis Ibarra egungo presidenteak 72 urte betetzen dituen egunean

Berria Tolosa

Garbiñe Biurrun magistratua izango da Euskal Autonomia Er-kidegoko Auzitegi Nagusiko presidente, behin-behinean. Juan Luis Ibarra da gaur egun lehendakaria, baina hark kargua utzi beharko du ekainaren 21ean, 72 urte betetzean. Egun horretan ordezkaturiko du Biurrunek.

EAEko Auzitegi Nagusiko Gi-zarte Arloko presidentea da Biurrun. Ibarra behin-behinean ordezkatzeko hautagaia Luis An-gel Garrido Bengoetxea da, Administrazio Auzietarako Arlo-

ko lehendakaria, baina Garbiñe Biurrunek denbora gehiago da-rama bere arloko presidente gisa, eta horregatik izango da hura behin-behineko presiden-tea.

Alarma egoerak, ordea, Ibarra ordezkatzeko prozesua etenda dauka –epe administratibo guz-tiak etenda daude–, eta horrega-tik jarriko dute Biurrun behin-behinean. Ondoren, Espainiako Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak izendatu beharko du presidentea.

Tolosarra Euskal Herriko Uni-bertsitateko irakaslea ere bada.

Euskal haragia, etxeraino

Baserria Km0 kooperatibak Internet bidezko denda sortu du, baserrietako haragia etxez etxe banatuz produkzioa babesteko; Euskal Herriko 300 abeltzainetik gora batzen ditu

Eneritz Maiz Etxarri

Euskal Herriko baserrien etorkizuna sendotzea du helburu Baserri Km0 kooperatibak. Koronabirusaren krisiak bultzatuta Internet bidezko salmenta indartu dute, eta honela Euskal Herriko baserritarren haragia etxeraino banatzen ari dira. 300 baserritar baino gehiago biltzen dituen kooperatibak tokiko produktuak kontsumitzeko deia egin du, «lehen sektoreari laguntzeko».

Produktu ezberdin ugari eskaintzen ditu sarean jarri duten *baserriakm0.com* dendak: mozketa anitzeko arkumeak, azpizuna, txuletak, entrekotak, hamburgeresak, saltxitxak, sukaldatutako platerak... Egoera berezia denez, *online* denda jartzearekin batera, eskaintza eta prezio bereziak ere eskaintzen ari dira.

«Hemen bertan, kilometro gutxira dauden larre eta baserrietan jaio eta hazitakoak dira gure animaliak», azpimarratzen dute kooperatibatik. Eta hazkunde prozesu osoan «jasangarritasuna eta ongizatea» ezinbesteko helburu dituztela argitu dute: «Kalitate gorena bermatzen duen haragia ekoizten dugu. Manipulazio maila baxukoa, haragi haragia».

«Etxetik gertu ditugun baserrietako 300 abeltzain baino gehiagoren lana dago produktu bakoitzaren atzean», nabarmentzen dute, eta kalitate bermea mantentzeko lan egiten duten beste 75 langile ere gogoan dituzte. Guzti hori ikusgarri eta errentagarri egiteko lanean ari dira: «Guztion indarrak batuz, ekosistemak, abeltzaintzak, ekonomiak eta, nola ez, produktuak onurak baino ez ditu».



Internet bidez produktu ezberdinak erosi daitezke, eta eskaintza bereziak ere badituzte. ATARIA



«Baserriak laguntzarik gabe izan behar du errentagarria»

IBON LOPETEDI ARRIOLA ABELTZAINA

E. Maiz Abaltzisketa

Ibon Lopetedi (Abaltzisketa, 2000) gaztea da, baina argi ikusten du bere etorkizuna. Juan Joxe aitak hasitako lanbideari eutsiko dio, eta prest dago erreleboa hartzeko. Abaltzisketan bizi dira eta bertan dute ustiatokia, haragitarako behiekin.

Otamendi Barrena baserrian txekorrak hazten dituzue.

Bai, txekorrak hazten ditugu, eta

behia ere baditugu ugalketarako. Aitarena da momentuz ustiatokia, baina gero nire eskuetara pasako da.

Baserriko lanetan lagunduko diozu, beraz.

Bai, gaur egun, egunero nago laguntzen. Eguneroko bizitza da, hau da, errutina bat da berari laguntzea. Konstantea da lana eta inoiz ez dago oporrik hemen.

Zenbat buru dituzue gutxi gorabehera?

Behi eta txekor artean 210 bat ditugu.

Ustiatoki handia da zuena.

Ez. Gipuzkoarako handi samarra bada ere, txikia da errealitatean.

Noiztik duzue baserria?

Nire aitona-amonek jada bazuten baserria, eta familiatik dator kit. Nire aita, orde, duela hogei ta bost urte hasi zen txekor eta behiekin lanean. Eta duela hogei ta bederatzia urtetik untxiekin ere bai, osagarri moduan. Baserritik ateratzen dugu ogia. Baserritarrak gara ehuneko ehunean.

Km0 proiektuaren barruan zaudete zuek. Horrek laguntzen du haragia saltzen?

Bai. Askok laguntzen du, eta orain, etxeetako kontsumoa dezentente handitu da. Jendeak ezin du taberna eta jatetxeetara joan, eta arrakasta ari da izaten. Pixkana funtzionatzen ari da, eta jendeak gehiago erosten du. Arazoa bereziki txuleta eta azpizunarekin dugu, beste produktuekin nahikoa ondo gabiltza.

Koronabirusaren aurretik ere bazen Km0 proiektua.

Bai, bazen, baina orain hasi dira Internetetik haragia saltzen, eta martxa ona hartu du.

Euskal baserrietako haragia etxera eramatea du helburu: bertako haragia, bertan kontsumitzea.

Bai, eta oso haragi ona da gainera. Kalitate ona du, eta baldintza

batzuk bete beharra dauzka haragi horrek Euskal Okela izateko. Eskaintza bereziak egiten dira, eta orain, esaterako, txuletak oso prezio onean daude. Kontsumo hori bultzatu nahi baita.

Eskaintza bereziak daude orduan?

Bai, hori da. Prezio oso interesgarriak jarri dira.

Eta zuek nola egiten duzue salmenta?

Gu kooperatibistak gara Urkaikon beste 300 ekoizle horiekin batera. Gurean txekorrak jaiotzen dira, hazten ditugu eta Urkaikora saltzen ditugu. Komertzializazioa Urkaikon egiten dute; harategietara edota Baserria Km0 orrialdera.

Jendeak garrantzia ematen dio hemengo haragia izateari?

Gure ustez, jendeak zer jaten ari den begiratzen du. Urteak pasatzen doaz, eta urtetik urtera jende gehiagori interesatzen zaio nongo haragia den, eta baita zein baserritarrarena den ere jakin nahi izaten dute.

Bertakoa jatea komeni, ezta?

Hori oso garrantzitsua da. Gainera baserritarrek jatekoa emateaz gain, Euskal Herriko mendiak garbi mantentzen dituzte ardiak eta behiak bertan ibiltzen direlako. Ziklo bat da guztia.

Lehen sektoreak urte asko daramatza krisian. Orain zein da egoera?

Hemen jendeak ez dakien arazo larri bat dago: gaizki kudeatutako baserri asko daude. Kudeaketak ona emanez gero, ondo joango zaizu. Ondo pentsatu behar da zein kudeaketa egin baserriak ondo funtzionatzeko. Gure ustiatokia duela 25 urtetatik dezentente ondo doa, eta aldaketa handirik ez dugu izan Covid-19arekin ere. Ondo ari gara saltzen.

Zein da bada baserria ondo kudeatzeko gakoa?

Finantzaketako gestio on bat eduki behar da, eta duzun dirua ondo gastatu behar duzu. Baserrietan ez dago enpresa izpiriturik. Askok duten izpiritua laguntzak jasotzearena da, eta gure ustetan laguntzak kendu egin beharko lituzkete. Laguntzek azkenean baserria hondoratzen dute. Gobernuari zerbait eskatu beharko bagenio laguntzak kentzeko esango genioke, baina baserriak bizirik mantendu nahi badituzte haragiaren prezioa igo beharko lukete. Jendea laguntzak kobratzera doa, eta azken batean baserriak laguntzarik gabe izan behar du errentagarria. Gure ustetan, baserritarrek ere enpresa kultura izan behar dute.

Maila berean jarraituko dute

Ziur aski futboleak ez da jaitsierarik izango, eta, beraz, Tolosa CF-ko emakumezkoen lehen taldeak 1. Maila Nazionalean jarraituko du eta gizonezkoenak Hirugarren Mailan

Imanol Garcia Landa Tolosa

Eskualdeko bi futbol talde nagusiek datorren denboraldian maila berean jarraituko dutela espero da. Espainiako Futbol Federazioak dirudienez gaur emango du futbol ligen egoerari buruzko erabakia, baina talderik ez dela mailaz jaitsiko espero da. Neurri horrek batez ere 1. Maila Nazionalean dagoen Tolosa CF-ko emakumezkoen taldeari eragingo lioke, liga bertan behera geratu zenean, jaitsiera postuetan baitzegoen. Gizonezkoen Tolosa CF-ko taldea, Hirugarren Mailan dagoena, jaitsieratik salbu zegoen lehiaketak eten zirenean.

Aurreko asteburuan bukatuko zuen liga 1. Maila Nazionaleko taldeak, bizi dugun egoera berezi hau egon ez balitz. Liga eten zenean 14. postuan zegoen taldea, azken hirugarren. «Sailkapena bere horretan hartuz gero, jaitsi egingo ginateke, baina badirudi ez dela jaitsierarik egongo, eta horrekin salbatuko genuke», esan du Imanol Cabero entrenatzaileak. Ia denboraldi guztian egon dira beheko postuetan, eta jaitsierarik ez izatea positiboa izango dela dio Caberok. «Beste aukera bat emango digu maila honetan lehiatzeko, eta dagoeneko urtebeteko esperientzia izango genuke».

Hirugarren Mailako taldea 17. postuan zegoen etenaldia izaterakoan, eta beraz, postu bategatik jaitsieratik salbatuta. «Talderik ez dela jaisten ofizial egiten bada, eta igoerak zehazteko azken sailkapena kontuan hartuko dela, erabakiak gehiago eragiten dio goiko postuetan daudenei, igoera borrokatzeko aukerak zizutenei», esan du Ander Avellaneda entrenatzaileak. «Egia da azken postuen inguruan genbiltzanoi ere ondo etorriko zaigula erabakia. Gainera, ez zen batere justua izango sailkapen hori kontuan hartzea jaitsierak erabakitze».

URTE BEREZIA BI TALDEENTZAT

2019-2020 denboraldia historikoa izango da orokorrean kirol mailan, baina horrez gain urte berezia izan da bi futbol taldeen zat. Emakumezkoen taldeak



Naroa Jauregi tolosarra, Tolosa CF-ko 1. Maila Nazionaleko taldeko jokalaria, etxean entrenatzen. ATARIA



Ander Zubillaga berastegierra, Tolosa CF-ko Hirugarren Mailako taldeko jokalaria, etxean entrenatzen. IRATI SAIZAR

Euskal Ligatik 1. Maila Nazionaleko taldeak igoera lortu zuten, orain arteko maila altuenean lehiatuz. «Lesionatuta denbora asko egon direnak denboraldi honetan eta partida asko jokatu ez dituztenak oso pozik daude, maila honetan beste urte batez egoteko aukerarekin», dio Caberok.

Hirugarren Mailakoak, igoera lortzeaz gain, Errege Kopa jokatzeak aukera izan zuen, eta Lehen Mailako Valladolid taldearen aurka jokatu zuen azken kanporaketa. «Hirugarren Mailara igotzea lortu genuela eta Kopako parte hartzea gogoratuko dugu, batik bat», esan du Avella-

nedak. «Koparena zerbait historikoa izan da, asko gozatu genuen, eta baita sufritu ere Valladoliden aurkako kanporaketara iristeko. Oso harro nago mutilek egindako lanarekin».

Denboraldiaren balantzea egiaterakoan, gehien ikasi duen urtea izan dela esan du Caberok. «Denak ilusio handiarekin hasi ginen, eta baita urteak luze joko zuela eta lan handirik egin gabe ere salbatu egingo ginela pentsatzen». Lehenengo partidak pasa ondoren, konturatu ziren maila horretan asko sufrituko zutela. «Beste urtetan lehen postuetan aritzen ginen, eta ia beti irabaz-

ten. Horrez gain, tendentzia negatibo batean sartzeak ere asko eragiten zuen, partida bat eta hurrengoak ere galtzeak, alegia». Etenaldia gertatu aurretik «txip aldaketa» bat izan zela esan du Caberok: «Konturatu ginen ondo entrenatuz gero, eta beste mentalitate batekin gauzak planteatuz gero, gai ginela gauza gehiago egiteko. Puntu batzuk lortu genituen, ez nahi bezainbeste, baina taldea hobeto ikusi nuen eta horrekin geratzen naiz».

Avellaneda, bere aldetik, gus-tura agertu da azken sailkapenean taldea jaitsiera postuetatik kanpo uzteagatik. «Nik uste dut

taldeek orokorrean falta ziren liga jardunaldiak jokatzea nahi zutela, eta gure kasuan erakustea taldea Hirugarren Mailan mantenduko zela», esan du entrenatzaileak. «Taldea oso ondo ari zen lehiatzen, eta balantzea positiboa da».

ERABAKIEN ESPEROAN

Konfinamendu egoeraren hasieran, asko deskonektatu zuen Caberok futboletik. «Gero hasi ginen pixka bat gehiago ikusten nola antolatu». Maddi Garikano prestatzaile lanetan aritu da bere lesiotik berreskuratu bitartean, eta Iraitz Garitano bigarren entrenatzailearekin batera, egin beharreko ariketak bidali dizkie jokalariei. «Orain kalera atera ahal dela, korrika egiteko gomendioak ari dira bidaltzen».

Etenaldia epe motzerako izango zela uste izan zuten Hirugarren Mailakoek. «Hasieran motivatuta geunden, jokariak eta entrenatzaileak, liga itzuliko zela pentsatuz eta prestaketa lanak eginez», esan du Avellaneda. «Egunak pasatzen joan diren heinean, gero eta argiago ikusten genuen lehiaketara itzultzeko aukera gutxiago zuela, eta luze egin zaigu». Bere aldetik, Avellaneda futbol gehiago ikusteko aprobetxatu du, taldearen partidak ikusi alor gehiago analizatzeko, eta Internet bitartez gehiago ikasteko.

Datorren denboraldiari begira ez da guztiz jarri 1. Maila Nazionaleko taldea. «Behin erakundek ligaren egoerari buruz erabakia hartzen dutenean, hasiko gara ikusten zer pauso eman», esan du Caberok. «Garbi dago denboraldi-aurre normala ez dela izango. Ez dut uste abuztuan hasiko garenik entrenamenduekin eta irailean partidak jokatzen ariko garenik. Datorren denboraldia ere berezia izango da».

Oraindik denboraldiari bukaera ofiziala eman behar zaiola berretsi du Avellaneda. «Gero iritsiko da momentua erabakiak hartzeko hurrengoari begira. Azkenean, osasuna da garrantzitsua, eta itzultzerakoan izango ditugun baldintzen inguruan erabakiak hartzen joango dira».

	Botagura Buka	Zoriontsu Zigorra egi- karitzen du Kontso- nantea	Soka urka- bilurdunak Hitz egiteari utzi	Kilometro a Leinuak Noka, da	Basamor- tuko berdegunea Zakuaren edukia	Ukitu Zuhaiz mota	Euskadi, laburrean Adinekoa Kontso- nantea	Bideko giro Georgiako hiria	Kontso- nantea Irrikaz desiratu Txistua, listua	Gipuzkoak o udalerria Hutsak
Burutazio	t	t	t	t	t	t	t	t	t	t
Euskal Herriko ibala	t									
Irina oratzeko aska	t									
Nitrogenoa										
Kolpearen onomatopela	t									
Ipar Europako herrialdea	t									
Nafarroako kontzejua	t									
Ardi, hitz elkartzeetan										
Kontsonantea	t									
Helduleku, euskarri										
Adar	t									
Putzu										
Lokatz asko dagoen leku	t									
Suari dagio										
Erbioa	t									
Zaunka eginez										
Opera batean, bakarla- rientzako musika zatiak	t									
Daukate										
Eskua besoari lotzen zalon zati	t									
Jardun										
Luzera neurri zaharra Bokala	t									
Ia ezin moldatuzko	t									
Bokala										
Zalantza	t									
Sutea										
Argitasunik gabeko aldiak	t									


15 beltzune ditu koadro honek

Sudoku erraza

					5		6	2
		5		3				
9		2		4			1	
		1			4			
6	3						8	7
			1			2		
	1			9		7		4
				5		9		
3	7		4					

Sudoku ez horren erraza

7			5	4	3			6
	1				8	7		5
		9					7	1
1	5						4	3
3	2					5		
2		1	8				9	
5			9	3	1			7



Normalitate berrira itzultzeko lehen aurrerapausoak

Eskualdeak 0 fasea hasi zuen astelehenean. Merkatarik batzuk lanean hasi dira, eta ostatu, taberna eta jatetxeek etxera eramateko janaria prestatzen hasteko aukera dute

J. Miranda / J. Artutxa

Liburu dendak, burdindegia, tailerrak, ile-apaindegia... Ia bi hilabetez itxirik egon dira. Bada, astelehenean aurrera, berriro ere lanean hasteko aukera zuten. Hori bai, segurtasun eta higie-neurri zorrotzak agindu zituen Espainiako Gobernuak. Zenbait dekretu argitaratu zituen Espainiako Aldizkari Ofizialean, eta horietan zehaztu zituen berriro lanean hasi nahi zuten negozioek nola egin behar zuten eta zein araubide jarraitu behar dituzten.

Eskualdeko herritarrak ere, konfinamendua arintzeko fase berriei jakitun, berehala jarri ziren martxan. Mari Pazek erabakiaren berri jakin bezain pronto

hots egin zion Mariaje ile apaintzaileari eta atzo goizean izan zuen hitzordua. «Auzokoak gara eta albistea entzun bezain pronto deitu nion Mariajeri». Konfinamendu garaia etxean musukoak egiten pasa du Mari Pazek eta egindako horietako bat bere ile apaintzaileari eman zion atzo. Maskara jantzita bakarrik ez, eskularruak jarrita eta segurtasun neurri guztiak hartuta kasu egin zien bezeroei Mariajek. Bezeroentzako erabiltzen dituen mantalak ere aldi bakar batean erabiltzekoak dira eta oinetako azpiak ile apaindegira sartzera-ko alkoholarekin desinfektatzen ditu. «Banaka hartu behar ditudanez, egunean zehar pilatu egiten zaizkit hitzorduak eta dezen-

teko lana izan dut egunotan», aipatu du ile apaintzaileak.

Eguerdian atsedetik hartu gabe ari da Gorka hortz klinikan. «Lankide batek eguerdira bitarte egiten du lan, eta besteak arratsalde; eguerdian ez dugu klinika ixten», dio. Bi gela dituzte klinikan eta txandaka erabiltzen dituzte. «Bat husten denean erabat desinfektatzen dugu eta bitartean bestean hartzen ditugu pazienteak». Pantaila, eskularruak, musukoak eta beharrezko neurri guztiak hartzen dituzte, eta erabiltako material guztia plastikoz estaltzen dute. «Plastikoa desagertzera zihoala zirudienean, orain inoiz baino gehiago erabiltzen dugu», nabarmendu du. Urgentziazko kasuak soilik artatu



Arropa denda baten sarreran eskuak garbitzeko gela eta eskularruak. J.M.

dituzte alarma egoeran, baina astelehenean ohiko kontsultak pasatzen ari dira eta Gorkak dio lanpetuta hasi dutela alarma egoerako fase berria.

Hitzordua eskatuta ari dira lanean, baita ere, Noraren arropa dendan. «Pare bat bezero etorri ziren astelehenean goizean, beste pare bat arratsaldean, ea pixkana martxa hartzen dugun». Dendaren atarian jarri dituzte eskularruak eta eskuak garbitzeko gel hidroalkoholikoa. Konfinamendu garaian, webgunea jarri dute martxan eta «zerbait» saldu dela aipatu du, baina aurrez aurreko tratua beste aukera batzuk eskaintzen dituela uste du. «Ateak irekita ikusterakoan, jendeari aukera ematen diogu, sartu eta

hitzordua eskatu dezan». Bitartean, barruko zenbait lan egiteko baliatzen ditu dendan ematen dituen orduak.

Astelehenean liburu dendek ere ateak irekitzeko baimena dute. Fabrik, ordea, ez ditu ateak itxi konfinamendu garaian, eguneroko prentsa ere saltzen duelako. «Aurretiazko hitzorduarena zenbait kasutan arraroa da. Nork eskatzen du aurrez zita bat liburu bat erosteko?». Orain goizez bakarrik zabaltzen dute liburu denda eta langile guztiak aritzen dira lanean. «Gogorra izan da, atsedetik gabe aritu garela». Aurreko asteetan bezala, segurtasun neurriak hartuta bezeroei arreta eskaintzen jarraitzeko asmoa agertu du Fabrik.

Hilberriak eta urteurrenak

Ataria jarrita Gipuzkoako 3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenean asteazkenean 18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Mikel Ongai Urbizu

Eskerrik asko erein duzun irri eta alaitasunarengatik.

Anttoni eta Patxi, Bego eta Enrike, Kristina eta Juan Carlos, Lurdes eta Jesus.

BEASAINen, 2020ko maiatzaren 6an



Iñaki Mujika Izagirre

*Udaberriko egun argitsu batean joan haiz
Hik emandakoa gurekin gelditzen dek
Agur eta Ohore*



IBARRA, 2020ko maiatzaren 6a



Iñaki Mujika Izagirre

*Doluminik zintzoena Txiribituko begiraleen partez.
Besarkada handi bat Eñaut eta bere familiari.*

Txiribitu Astialdi Elkarte

IBARRA, 2020ko maiatzaren 6a



Iñaki Mujika Izagirre

*Ibarrako Udaleko zinegotzi ohia
Eskerrik asko zure lanagatik
Ez zaitugu ahaztuko*

Ibarrako Udala



IBARRA, 2020ko maiatzaren 6a



Iñaki Mujika Izagirre

*Une latz hauetan
bat egiten dugu
famiaren saminarekin
Uzturpe ikastolako langile, ikasle eta gurasoak.*



Uzturpe ikastola

IBARRA, 2020ko maiatzaren 6a

«Inoiz baino lan gehiago egiten ari gara egunotan»



J. Artuxa Dorronsoro Tolosa

Sukaldearekin eta bertako produktuekin harreman estuan bizi dira Gorka Rico eta Javi Rivero, Ama tabernako jabeak. Amaren egunaren aitzakian hasi ziren etxera eramateko otorduak prestatzen. Sekulako eskaria izan zuten. Datozen asteetarako ere ugari dituzte. «Ez genuen espero, ezta pentsatu ere», dio Riverok.

Zein da Tolosako ostalarien egoera une honetan?

Denbora zen ostalariak biltzen ez ginela, eta nobedadea izaten ari da gure artean bilerak (birtualak)

egitea, bai urteetan herrian aritu direnontzat, baita berriak garenontzat ere. Talde handi bat bezala funtzionatzen hasi gara, eta orain, gainera, modu zuzenagoan komunikatzen gara udalarekin. Egoerara egokitu beharrean gaudela, baina uste dut etekin on bat atera dezakegula. Modu batera edo bestera, baina antolatu egin gara, eta hori ezinbestekoa zen.

Zenbatek duzue otorduak etxetara eramateko asmoa?

Une honetan, herriko hiru establezimenduk dugu zerbitzu hori martxan. Beste bi ere jarri dira gurekin kontaktuan, informazioa

eskatzeko. Esan beharra dago, erabiltzaileek zerbait berezia nahi izaten dutela; hori da zerbitzu honen esentzia. Donostian, esaterako, sukaldaritza modernoak edo abangoardistak du sona. Hemen, ordea, ez dago horrelako aukera handirik, eta beraz, gu behintzat hori bilatzen saiatzen gara.

Amaren egunaren aitzakiarekin lan handia egin behar izan genuen, aurreikusitakoak baino eskari gehiago jaso genituelako. Baina, taberna guztiak berdin hasiz gero, hiruzpalau merkatu horretatik kanpo geratuko lirateke. Jendeak hilabete izan du etxeko sukaldean trebatzeko, eta beraz, egin ezin duen hori edo lan handia ematen dion hori bilatzen du orain. Gure eskaintza horretara bideratzen saiatu gara, eta agian hori izan daiteke taberna askok zerbitzu hau martxan jartzeko izan dezaketen zalantza handiena. Merezki ote die, ala ez?

Zuek janaria etxeraino eramateko zerbitzua jarri zenuten martxan. Zergatik?

Kontziente ginen gure bezeroak mantendu nahi izanez gero, zerbitzu egin behar genuela. «Gauzak

aldatuko dira, baina gu ez gara joango, hemen egongo gara». Mezu hori transmititu nahi genien. Lehen hilabeteetan, baina, desinformazio ugari zegoen. Ez zen hasteko une egokiena. Jendea lasaitu zenean eta errutina batzuk normalizatzen hasi ginenean, orduan bai. Ondorioz, Gorka sukaldean eta ni banaketa egiten hasi ginen, gure proiektua berriro ere martxan jarri eta bizirik mantentzeko nahiarekin. Guk lehengaia ematen diegu bezeroei, gero be-
raiek zerbitzatu dezaten, guzti honen parte sentitu daitezen.

Nola ari zarete lanean krisia aurrera eramateko?

Lehen aipatu bezala, banaketa zerbitzua bion artean egitea aurreikusten genuen hasieran. Hala ere, eskari erdiak baino gehiago Tolosatik kanpo jaso direla eta horrek dakartzan ondorioak kontuan hartuta, ezinezkoa zela ikusi genuen. ABEE-tik langile bat atera eta horrek ekar zezakeen arazoa aurre egitea pentsatu genuen. Baina, langile hori ezin bazen ABEE-ra itzuli, eta guk ezin bagenuen mantendu, guztia zulora zihoan. Hortaz, horrelako manio-


bra egitea apustu txiki baterako arrisku handiegia hartzea zen. Aktibitate itzultzeak hori dakar. Ondorioz, Irene Caminos lehenagusiari galdetu nion, ea prest egongo zen zerbitzuan lan egiteko. Erlaziozko kontratu bat dugu, berak guri publizitatea egiten digulako. Orain lehiatzen ari ez denez, otorduak banatzen ari da.

Orain, baina, sukaldari bat aterako dugu ABEE-tik, eskariari aurre egiteko. Gainerako langileek egoera berean jarraituko dute. Taberna irekita genuenean baino lan gehiago egiten ari gara egun hauetan, gastu gutxiago ditugulako. Aurkikuntza bat izan da, eta mantentzea gustatuko litzaiguke, baina ahal bada, bolumen handiagoarekin eta langile guztiekin.

Beste kontu bat da terrazak jartzeara. Zer nolako erantzuna emango zaio herrian?

Oraingoz inork ez du baieztatu taberna irekiko duenik. Aldiz, askok aitortu dute ez diela merezi, hartu beharreko neurri guztienatik. Eta hala da, ez delako bezeroen joan-etorri handirik espero; kalean egoteko eta sozializatze beldur handia dago oraindik.

«Jendea lasai egon dadila, neurriak hartuta daude»



Jon Miranda Tolosa

Ia bi hilabeteko etenaren ostean, maiatzaren 4ean, justu Rondilla kaleko egoitza ireki zutela bi urte betetzen ziren egunean zabaldu zituen berriro ateak San Migel kiropraktika zentroak. Unai Muñoz (Azpeitia, 1988) kiropraktikoa «pozik» agertu da, berriz ere lanean itzultzeko aukera izan dutelako.

Noiz erabaki zenuten kiropraktika zentroa ixtea?

Ez genekien zer pasatuko zen eta bat batean iritsi zen alarma egoera. Martxoaren 14ean itxi eta zain

egon gara ordudanik. Joan den astera arte ez genekien noiz zabaldu ahal izango genituen ateak. Espainiako gobernuko presidentek iragarri zuen aurretiazko hitzordu bidez funtzionatzen duten zentroek ireki ahal izango zizutela ateak maiatzaren 4tik aurrera eta buletin ofizialean igande gauean iragarpena atera arte zain egon behar izan genuen, jendea babestuta eduki ahal izateko zein neurri hartu behar genituen jakiteko. Guk gutxi gora behera aurreikusten genituen neurri horietako batzuk eta aurrea hartu ahal izan diogu egoerari.

Bien bitartean, bi hilabete eman dituzue lanik egin gabe. Nola eragin dizue egoerak?

Ahal den neurrian, gure eskura jarri dituzten laguntzak eskatu ditugu. ABEE-n sartu ditugu langileak, bai Tolosan dugun zentroan, baita Azpeitikoan ere. Hemen Tolosako bulegoan bi kiropraktiko aritzen gara eta beste langile bat egoten da harreraren.

Zein segurtasun neurri hartuko dituzue hemendik aurrera?

Mundu guztiak ulertzen dituen neurriak dira. Bezero bakoitza aratu eta gero eskularruak aldatu egiten ditugu eta eskuak uneoro mantentzen ditugu garbi gel hidroalkoholikoekin. Maskarak erabiltzen ditugu eta harrerako langileak pantaila ere izango du. Bezeroei eskatzen diegu maskarekin etortzeko, baina horrelakorik ez balute, guk ematen diegu behin erabiltzeko horietako bat. Baina, batez ere, lokala garbi mantentzen saiatuko gara, desinfektatuta. Egunean bitan garbiketara sakona egingo dugu. Gainera, ozono sorgailu bat erosi dugu, giroa desinfektatzen laguntzen duena.

Eskularruak eramatea eragozpena al da zuen lanerako?

Ohituta gaudela eskularru gabe lan egiten. Ez da berdina, baina ez gaitu hainbeste mugatzen. Segurtasun neurriak onerako diren heinean hartu beharrekoak dira.

Hitzordua eskatuta funtzionatzen zenuten lehen ere, neurri handi batean.

Guk beti funtzionatu dugu aurretiazko hitzordua hartzen eta modu horretara jarraituko dugu. *Modus operandi* guztia aldatu zaigu ordea. Lehen 10 minutu edo 15 minututan hiru paziente pasa zitezkeen gure zentroetik, orain ordea, gela berean ezin dugunez bezero bat baino gehiago eduki, distantzia gehiagorekin ematen diegu hitzordua, batik bat, lokal barruan gurutzatu ez daitezen. Hiru ohatila dauzkagu, horietako bi erabiliko ditugu, baina inoiz ez biak batera. Bat okupatzen denean, bestea ondo garbituko dugu hurrengo bezeroa sartzen denerako.

Bi kiropraktikoek jarraituko duzu lanean?

Harrerako langileak eta nik jarraituko dugu lanean, nik hartuko di-

tut beste kiropraktikoaren lanak, momentuz behintzat.

Pozik zaudete berriro ere lanean hasiz aitezketelako?

Bai. Guretzako notizi ona izan da. Beste sektore batzuetakoak zain egon beharko dute oraindik. Gauzak ondo egiten baditugu, nik uste dut urte bukaerarako beste egoera batean egon gaitzkeela. Buruz jokatu behar dugu, zentzudun eta ea lehengo normalitate itzultzen garen. Uste dut jendeak presenteago edukiko dituela garbitasun kontuak.

Jendea beldurrez sentitzen al duzue?

Nerbio puntu hori ulergarria da. Denak ez gaudela egoera berdinean eta herri guztietan ez du birusak berdin erasan. Azpeitian, zentzuz jokatu arren, jendea lasaiago sumatzen dut Tolosan baino. Baina lasai egon dadila jendea. Neurri guztiak hartuta daude, garbi egongo da uneoro zentroa eta arrisku minimo bat ikusten badugu, ez dugu ekintza hori exekutatuko. Beldur puntua pasatzen joango dela pentsatzen dut.

**Elkarriketa osorik irakurtzeko aukera, ataria.eus webgunean.*



ASTEAZKENA, 2020KO MAIATZAK 6
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezere arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amesketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraui, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 06

ATARIA IRRATIA

09:00-13:00. Postalak bidaiarien tarteak, *Kantazgora* eskualdeko musikarien proposamenekin osatutako musika saioa, *Patxadaz* elkarrikiten tarteak, kolaboratzaileen tarteak eta *Entzuteko* jaioak musika saioa.

16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko irratiek eginiko magazina.

19:00. Ahoz Aho Ipuinak ez dira geldituko

20:00. Playback Ataria. Musika saioa, Adriana Gaultier DJrekin.

28 KANALA

11:00. Etxean bai... Geldirik ez! (Aran-txa Orbegozi)

11:30. Gaurkoan Tolosaldeko

12:00. Etxean bai... Geldirik ez! (Leire Laca eta Miren Valverde)

12:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!

17:00. Adinberri

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko

22:00. Spinning klasea

23:30. Gaurkoan Tolosaldeko

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunkoia. Leyre Lejeune Maset. Euskal Herria kalea, 24. 943 67 32 74.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi, 6 behe 1. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro lasaia izango dugu berriro ere. Ipar-uki-tuko haizearekin hodeitza handiagoa izango da, baina hala ere, hodei hauek ez dute bestelako ondorioz ekarriko eta giro ateri eta lasaiekin emango dugu eguna. Tenperaturak ez du aldaketarik jasango eta maximoa 23-24 graduan errendituko da.



Bihar. Antzeko giroa izango dugu. Zeruian hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira egun osoz. Arratsaldean bero hodeiren bat edo beste agertuko da, baina inolako garrantzirik gabeak, egun osoan ateri eutsiko duelarik. Haizeak ekialdeko ukitua izango du eta termometroak koskatxo bat gora egingo du, maximoak 24-25 graduan errendituz.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-
nen eta iritzien erantzukizunik.

Itxialdia arinago egiten

Irura Bizi elkarteak bultzatuta ia herri osoan musika eta animo mezuak izan dira entzungai; larunbatean amaituko dute

Erredakzioa Irura

Larunbat honetan amaituko da Irura Bizi elkarteak itxialdiko egun luzeak arinago egite aldera abiarazitako ekimena. Egutero, iluntzeko zortzietan eskerrak emateko txaloen ostean Mikel Laboaren *Txoria Txori* abestia izan da entzungai herrian, eta larunbatetan, berriz, ordu erdiko musika tarteaz gozatu ahal izan dute herritarrek.

«Herritar bat hasi zen Laboaren kantua jartzen, eta elkartetik pentsatu genuen herri osoan entzutea polita litzatekeela», azaldu du Irura Bizi elkarte Jon Bordagaraik. Hala, ekimenarekin bat eginda, herriko puntu desberdinetan kokatutako bederatziz bizilagunek balkoietan altabozak jarri dituzte eta ia herri osoan izan da entzungai *Txoria-Txoriren* bertsio desberdin bat egutero. «Tartean, herriko akordeoi jotzaile Joxe Mendizabalek egindakoa». Larunbatetarako, bestalde, ordu erdi inguruko saioa eskaini dute. «*Txoria Txori* abestiaren ostean, elkartetik luzatutako animo edo eskertza mezua zabaldu dugu, ondoren,



Irurako balkoietan festa giroan. ATARIA

Iruran, batez ere hasieran, birusak gogor jo duela ikusita hildakoen omenez *Xalbadorren heriotzean* jarri dugu, eta horren ostean, gaztetxoenei eskainitako *Maite zaitut*. Horrekin batera, herritarrei Irurako festetako zapi balkoietatik zintzilikatze gonbita ere luzatu zuten elkartetik.

Irurarrek ekimena «gustura» hartu dutela adierazi du Bordagaraik. «Mezu bidez nahiz kalean polita iruditu zaiela esan digute. Gainera, egun batean, jendeari balkoietan ateratako argazkiak WhatsApp taldera bidaltzeko eskatu genion eta asko jaso ditugu; asko, gainera, mozturrotu eta guzti egin ziren argazkirako». Bideoa ere osatu dute bildutako argazki guztiekin.

Bada, «herritarren konfinamendua arinago egin eta herria egiteko» sortutako ekimena larunbat honetan amaituko da. «Pixkana arintzen doala ikusi dugunez, gehiago ez luzatzea erabaki dugu». Irura Bizi elkartetik eskerrak eman nahi izan dizkiete ekimena posible egiteko era batera edo bestera lagundu duten herritar guztiei.



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA
2 ETA 3 LOGELA, GARAJE ETA TRASTELEKUAK
TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK

CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L.

Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com/iturtxulo
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484